# BERASTEGI

– GIPUZKOA –

Berastegi Donostiatik 33 kilometrora dago, Urto mendateko eremu zelai batean, San Lorentzo, Ipuliño eta Gaztelumendi mendiek inguraturik. Tolosaldeko herria da.

XI. mendean lursail eta mugarriak zehazteko lanak jakinarazten dituzten agirien bitartez dugu lehen aldiz Berastegiren berri. Tolosarekin bat egin zuen 1374. urtean, baina administrazio ekonomikoa eta mendien ustiapena ez zituen galdu. 1615. urtean hartu zuen hiribildu titulua, Filipe III. ak emana, eta orduan bereizi zen behin-betiko Tolosatik. Eraikin azpimarragarrien artean, Tourseko San Martin parrokia, San Lorenzo baseliza eta Jauregi dorretxea daude. Azken hori, Berastegi etxearen jaurerria izan zen, Erdi Aroko leinu horrek herrian izan zuen indarraren erakusgarri.

La localidad de Berastegi se encuentra a 33 km de Donosti-San Sebastián, en una zona llana del puerto de Urto, rodeada de cumbres como las de San Lorenzo, Ipuliño o Gaztelumendi. Pertenece a la comarca de Tolosaldea.

Las primeras noticias provienen de los documentos de demarcaciones y amojonamientos del siglo XI. Berastegi se unió a Tolosa en 1374, pero conservó la administración económica y el derecho de aprovechamiento de sus montes. No fue hasta 1615 cuando recibió el título de villa, concedido por Felipe III, separándose definitivamente de Tolosa. Entre los edificios de mayor relevancia encontramos la iglesia parroquial de San Martín de Tours, la ermita de San Lorenzo y Casa-Torre Jauregi, o Casa Solar de los Berástegui, que testimonian el pasado medieval de este linaje en la localidad.

## *Tourseko San Martin eliza* / *Iglesia de San Martín de Tours*

HARLANDUZKO HORMA garai eta kontra-horma sendoek eusten diote Tourseko San Martin parrokiari, gotorleku itxura emanez eraikinari. Hainbat aldaketa egin izan dizkiote historian zehar: apaizetxe eta sakristiarako egindako eraikina erantsi zioten, bai eta tenpluaren oinetan ateratzen den kanpandorre zirkularra ere.

Hegoaldeko horman den atari nagusia da elementurik zaharrena. Dezente txaranbelduta dago, eta bederatzi arkibolta zorrotzek osatzen dute, profil alakatuko inposta baten gainean. Inposta hori bera, ate-zangoen gainean dago. Duen itxuraren arabera, ematen du oso aro berantiarrekoa dela, XIII. mendearen amaierakoa, eta Berrobiko eta Elduaingo elizen oso antzekoa da.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

LA IGLESIA PARROQUIAL de San Martín de Tours se alza con altos muros de sillería y grandes contrafuertes, que le proporcionan un aspecto de fortaleza. Ha sufrido grandes cambios a lo largo de su historia, como demuestran las construcciones anexionadas que cumplen las funciones de casa cural y sacristía, además de la torre-campanario circular que sobresale a los pies del templo.

El elemento más antiguo de su fábrica es la portada principal que se abre en el muro sur. Con un profundo abocinamiento, se compone de nueve arquivoltas apuntadas que descansan sobre una imposta lisa de perfil biselado, y ésta, a su vez, sobre las jambas. Por su aspecto parece obra muy tardía, de bien entrado el siglo XIII, guardando gran parecido con las de Berrobi y Elduain.

Texto y fotos: JCE/MLAI

*Bibliografia* / ***Bibliografía***

GÓMEZ GÓMEZ, A., 1996, pp. 98-99; GOROSABEL, P., (1862) 1972, pp. 106-111; LEKUONA, M., 1978e, p. 176; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., II, 1997a, pp. 905, 911-912; MADOZ, P., 1845-1850 (1991), p. 36; MÚJICA, S., 1918 (1980), pp. 928-951; URTEAGA ARTIGAS, M., 1992, pp. 89-92.




*Portada* / *Portada*